

HAUR LITERATURA

Oreka arriskutsua

Asun AGIRIANO

A modiozko kontakizuna dago “Tropezista” liburuan, zirku-mundutik datorren bikote baten harremana eta elkarri ulertzeko modua. Etengabean estropezu egiten duen emakumearena, eta beti ondoan, jasotzeko prest, dagoen gizonarena. Euren artekoa, lotura traketsa batzuetan, baina zoriontsua.

«Halako batean, neska malabarista polit bat ezagutu nuen kalean (...) behin estropezu egin zuen, eta nik besoetan hartu nuen; nik ere estropezu egin nuen eta bazterreko putzu batera erori ginen biok. Elkarri begira geratu ginen, harrituta, berebiziko txilinbuelta egin bagenu bezala».

Liburu honekin Elena Odriozolak Ilustrazioaren Euskadi Saria eskuratu zuen 2013an. Indar narratibo handia duten irudiak dira, zeintzuek, esango nuke, testuak dioena gezurtatzen duten, ez baita gauza bera irakurri eta ikusten duguna. Kontakizunaren mezua baikorra da: bestea onartu beharra dago zoriontsua izateko. Irudietan, berriz, gizona aldendu egiten da, azken orrian joaten ikusten dugu; alboan, zintzilikatuta emakumea begira dago. Amodiozko harremanetan ez da erraza originaltasuna denboran mantentzea. Horrela ulertu du Odriozola ilustratzaile sotil bezain zorrotzak, begirada aktiboa propo-

satuz. Bikotearen harreman ditzosoan, irudiek orri osoa hartzen dute, Pariseko leiho handiak eta euren joko amodiotsuak ikusten ditugu; horrelakoetan testurik ez dago. Protagonisten loturak ahultzen doazen neurrian irudien tamaina txikiago agertzen zaigu.


«Eta azkenean, hara: ez erortzen hasi da, ez erortzen ikasi du.

Orain, lasaiegi bizi gara.

Pixka bat aspertuta gaudenean, estropezu txiki bat egiteko eskatzen diot, eta hala egiten du.

Eta barrez lehertzen gara».

Jorge Gonzalvo-ren (Zaragoza, 1972) hitzei eta ideari beste norabide bat eman dio Odriozola ilustratzaileak, amaieran pertsonaiak ez daude barrezka, gizona bada. Neskak oreka lortu duenean, estropezuak bentzutu ditunean, bikotearen harremanak misterioa galdu du; maitasuna bizitzaren prozesu errepikarian erortzen da. Testuaren eta ilustrazioen bi kodeak dira liburu honen euskarri komunikatzaileak, biak irudimenaren bultzatzaile. Niretzat, baina, irudiek garrantzi handiagoa hartzen dute, joko interesgarriagoa proposatzen digute. Elkarren antz handia hartzen diet ilustrazio hauei –teknikoki desberdinak izan arren– eta “Aplastamiento de las gotas” albumeko marrazkiei. Haiek



TROPEZISTA

Autoreak: Jorge Gonzalvo eta Elena Odriozola.

Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide.

Argitaletxea: Denonartean.

Orri kopurua: 32 orri.

Salneurria: 14 euro.

ere narratibotasun eta poetika berezkoa zuten, haiek ere Ilustrazioaren Euskadi Saria lortu zuten 2009an. Orduko testua Julio Cortazarrena zen; “Tropezista” kontakizun honetako egileari idazle handi horren eragina antzematen zaio.

Guretzat, irakurle eta liburuen irudigile eder bilatzaile nekaezinontzat, erronka handia da aparteko ilustratzaile honen irudi bakoitza, opari dira Odriozolaren lanak.

Itzultzaileak jatorrizko testua moldatu du, bertsio librean. Oinarrizko zentzua mantenduz, irudi poetikoz betetako hitzak saihestu ditu. Horrela, irakurlearen

profila aldatu egin dela esango nuke; orain, testua hobeto ulertzen da: gazteen edo helduen gozamenerako istorioa zena, estilo-ukitua egin ondoren, haurrentzat ere ulergarri bihurtu da.

Argitaletxearen lan eskerga kontuan eduki behar da. Izan ere, dudarik ez dago liburu berezi hau kaleratzea apustu ausarta dela; irudiak ez dira ohikoak eta begitik berehala sartzen zaizkigunak, kolorerik ez dago eta kode grafikoa interpretatzeko esfortzua egin behar da. Euskal edizio-merkatuak horrelako lan arriskutsu eta iradokitzaileak beharrezkoak ditu album ilustratuen panorama normalizatzeko.

HELDUEN LITERATURA

Ez dut moztuko bizarra

Iker ZALDUA

Koldo Izagirrek “Parisen bizi naiz” idatzi zuenean kulturaren hiria zurrumurrua besterik ez zen, edo dagoeneko oihartzuna zen, Kantaurin barrena desagertzen zen oihartzuna. Hiru urte beranduago ikusi dugu zubi gaineko inaugurazio “xume” eta “apala”, Donostiak kulturaren gaurko jantzia beztitu du, hiria hedatu da bideetan.

Baina bide horietan ez da agertuko Susaren ale hau, bide horietan ez du lekurik kultura honek, bide horietan ez da agertzen Marrutxipi. Hor dago Izagirre, leihotik euriari so, leihotik hiriari so, “Marrutxipi deritzan auzoko / hogeita hamabostean, hirugarren ezker...”. Heda-bideetan hedatzen ez den hiria du hizpide “michelin gidan ageri ez diren kantailak”. Herri kutsua duen hiria, euskal hiriaren tasuna, ezaugarria, lotsarik gabe sostenga dezakeen hiria, agian ez Bernardok begitantzen duena, baina euskal hiria.

Egiaz, Arestirekin hobeto konpontzen da poema hauetan irakurtzen dugun hiria, eta Izagirrek hari kalea eskaini dio Donostian “errekaldean lizarra / hari begira



PARISEN BIZI NAIZ

Autorea: Koldo Izagirre.

Argitaletxea: Susa, 2013.

Orrialde kopurua: 144 orri.

Salneurria: 16,15 euro.

izarra / bere burua eskuratzea / euskaldunaren liskarra”, bai eta Bilbon ere “errekaldean lizarra / hari begira izarra / mende honetan minbera dago / euskaldunaren bizkarrak”. Bide batez, liburu honetako biografia txikian bizardun ageri da Izagirre.

Norteko haritzaren gerizpeko gogoeta izeneko poeman ere gertuago ikusiko dugu herri kutsua duen euskal hiri hori; “haritz ezki pago lizar urki platanondoak maiteko ditut”. Baina, egunero leihora hurbiltzen denean, oso bestelako paisaia ikusten du Izagirrek “udaltzain gazteak harroaldiko gaztelaniaz tu / edozein tren apeaderotan Magrebeko gazteei begitartera”.

Porrot egin ote dugu? Bizar eta guzti lurperatuko ote gaituzte? Hau irakurtzen duenak ezetz pentsatuko du. Izan ere, euskararen erregistro gorenaren erakusten digu hemen Izagirrek (halakorik badela frogatuta geratzen da, bide batez). Erregistro guztiak menderatzen ditu eta ulertu nahi duenak ulertzeko moduan plazaratzen ditu, ahalegina eskatzen du, arreta eskatzen duen irakurketa bat da. Askok ez duela ulertuko esango du (badakit hori, baditut asko), eta euskara oso korapilatsua dela esanez zurituko du bere burua (badakit

hori, baditut asko), errua OHO egin zuenetik euskaraz ez irakurtzeko erabakian dagoela erreparatu gabe.

Bai, arretaz irakurri behar da, behin baino gehiagotan irakurtzekoak dira lerroalde zenbait, eta hiztegia ere hartu behar da zenbaitetan (ez lotsa horregatik). Baina euskara freskoa darabil, freskotasuna du te bere poemek, askeek zein neurtuek. Kobletan ere egiten baitu Izagirrek “Parisen bizi naiz” honetan, “Donostia” edo “Rouen” izeneko aleak “Egun da santimiña” kobla-doinuaz irakur daitezke, hori nire gomendioa.

Gozatu egiten du euskaraz Izagirrek, jolas egiten du euskararekin. “Nahi ez ordea” izeneko alean hitz-joko ederrak egiten ditu eta jolasean jolas eraikitzen du poema (bai, euskararekin jolastu ere egin daiteke).

Euskal hiria beraz, “Harri eta Herri”-rekin zerikusi handiagoa izan dezakeen arren, euskal hiria aldarrikatzen du, herri kutsua duen hiria. Oraindik bada, oraindik bagara, eta, apika, Salvatoreko apeadero bezalaxe sasiak hartuta amaitzeko arriskuan gaudela ohartarazten digu Izagirrek, baina, bakoitzak ikusiko du, bizarra moztu ala ez.